

HERRIKO HARAGIAREN ASTEAREN AURKEZPENA

KALOSTRAPE JATETXEAN (BAIONA)
2024ko AZAROAREN 26an, ASTEARTEZ, 12:30tan
BAZKARIA ESKAINIA



Herriko Haragia elkarteak antolatzen du :

Herriko Haragiaren astea
abenduaren 2tik 7ra, astelehenetik larunbatera

Gertakari hau baita orokorkiago Herriko Haragia saila ere aurkezteko (laborari bat, animatzailea, haragi hornitzaile bat izanen dira), Herriko Haragi baten inguruan eskainia den bazkari batean parte hartzera gomitatzen zaitugu:

aurkezpen bazkaria
Kalostrape jatetxean
2024ko azaroaren 26an, asteartez
12:30tan
22 Marengo karrika, Baiona

Milesker zure presentzia baieztatzea berantetik 11/18 arratserako (herriko.haragia@orange.fr / 07 82 12 66 23)

Herriko Haragiaren astea

Aste honen helburua Herriko Haragia aiseago deskubritzea da, nun jastatzen ahal den leku zehatzak identifikatuz.

Aste honetako printzipioa sinplea da :

- **Arratsero (astelehenetik larunbatera), ongi identifikatua izanen den jatetxe desberdin batean, Herriko Haragia proposatzea (idiki eta/edo aratxekia).** Sukaldari bakoitzak bere manierara kozinatuko du, haragia itxura desberdinetan ezagutzeko parada izanen da.
- Sailak jantegi kolektiboarekin ere lan egiten duenez (eskolak, EHPAD etab.), azken honi ere proposatu diogu aste honetan parte hartzea. Horrek, tokiko jatea ere leku horietan jokatzen dela oroitarazteko aukera ematen du. **Horrela, eguerdiro (astelehenetik larunbatera), ikasle edo beste jantegi kolektiboen erabiltzaileek Herriko Haragia jastatzeko parada ukanen dute** aste honetan.

Herriko Haragiaren asteak, urtean aste batez, Herriko Haragia saila argitan ezartzea xedea du. Aste batez, ongi identifikatuak diren lekuetara kontsumitzaileak gidatzea ahalbidetzen du. Baina Herriko Haragia ez da aste honetan bakarrik, saltoki anitzetan (harategiak, supermerkatuak, jatetxeak, kantinek, epizeriak...) atxematen ahal da urte osoan. Leku guziak agertzen dira sailaren webgunean : **herriko.fr**.

Gainera, Herriko Haragiaren asteak, tokiko jatearen gaia eszenaren aitzinean ezartzeko aukera ematen du, eta oroitarazten du hurbileko laborantza eta gure lurraldearen balorizazioa sustatzen duela Herriko sailak. Kontsumitzaileei kalitatezko tokiko haragiaz hornitzeko eta hazleei beren aktibitateak hobeki bizitzeko aukera ematen die. Gaur egun, 300 hazle sailan engaiatuak dira, eta ehun bat saltoki badira nun Herriko Haragia atxematen ahal den.

Harremanetarako : Benoit JEAN / 05 59 37 18 82

Julia HERMOSILLA / 06 76 27 24 89

Manu BERASATEGUY / 06 09 91 40 91